

Jardunian. Ez dira asko izango Zestoan gizon hau bezala egunero goizeko 4:30etan jeikitzen direnak, ez behintzat jubilatuen artean. Domingo Lizasok hainbat lan egin izan ditu, baina oraingoan elizako erlojuaren ingurukoei buruzko galderak bakarrik egin dizkiogu. Izan ere, urte askoan bere kargu egon da plazako erlojua. Duela gutxi utzi du lan hori eta herririko udalak oroigarri bat ere eman dio esker onez. Baina ziur nago askok eta askok ez dakizkitela lan honen nondik norakoak. Eta hain zuzen, horrexegatik jo dugu Domingorengana zenbait galdera egiteko asmoz.

31 urte erlojuari begira

NOIZ ETA NOLATAN HASI ZINEN ERLOJUARI KARGU EGITEN? 1970ean hasi nintzen 45 urte nituela eta ia zko ekainean utzi nuen kargua, desgaste bat azaldu zitzaidalako. Beraz, hogeita hamaika urte eman ditut erlojua zaintzen. Garai hartan Julian Arozena zegoen alkate eta ni udaltzaina nintzen. Orduan Luxiano arduratzen zen erlojuaz, baina harentzat buruhauste handiegia omen zen eta Julian Arozenak esan zion "Ba, erakutsiok Domingoi", eta halaxe hasi nintzen. Hasieran urteko 500 pezeta ematen zidaten erlojua zaintzeagatik, azkenaldara 16.000 pezeta. Baina nik lan hori ez nuen diruagatik egiten, langintza hari kariño handia hartu bainion.


NORENA DA ELIZAKO DORREAN DAGOEN ERLOJUA? ETA NOIZKO A OTE DA? Erlojua udalarena da, nahiz



eta elizan egon. Bestalde, noizkoa zen jakin nahian Anastasio Alkorta zena-rengana jo nuen. Paper zahar batzuk atera zizkidan eta han jartzen duenez erlojua 1879koa da. Aizarnakoa ere garai hartakoa omen da. Orduan Manuel Izeta zegoen alkate eta erlojuaren egilea berriz Benito Yeregi izan zen eta Aginagan (Usurbil) egin omen zuten erlojua. Horrela bada, aurten 123 urte egingo ditu elizako erlojuak.

ORDU ALDAKETETAN IZANGO ZENITUEN BA, GORABEHERAREN BATZUK...

GOIZEKO 3ETAN JOATEN AL ZINEN ORDUA ALDATZERA? Gehienetan bere orduan egin izan ditut aldaketak, baina azken lau bat urtetan goizeko 5ak inguruan edo. Ordua aldatzeari buruz, berriz, zer esango dizut, ba? Aurreratzea ez da hain zaila, baina atzeratzeak baditu bere gorabeherak. Erlojuari ezin zaio atzeraka bira eman, eta horregatik ordu asko aurreratu behar izaten dira, hamaika. Kontuan hartu behar da ordu erdiro kanpaiak jotzen dituela, eta goizeko ordu horietan horrenbeste kanpai jotzen hasi ezker... Gainera, pena ematen zidan hori egiteak, erlojuak tratu txarra hartuko zuelakoan, hainbeste aurreratzen. Beraz, gelditu egiten nuen erlojua eta handik ordubetera berriz martxan jarri.



LAN ASKO EMATEN AL ZIZUN ERLOJUAK? KUERDA EMAN, ENGRASATU... Beno, kuerda zortzi egunetik behin eman behar zaio. Bestalde, haize haundia denean eta, altura haundia daukanez, nik nere martingalak neuzkan. Bai lana... beti ematen du lana. Baina nik kariñoa hartu nion eta ez zitzaidan inporta haizearekin ere joatea, joan behar zenean beti joaten nintzen. Engrasatzearena berriz, astero-astero botatzen nizkion olioak eta grasak. Ostolaza Debako erlojeroak ikusi zuenean esan zuen erlojua oso ondo engrasatuta eta zainduta zegoela. Jendeak beti esaten zidan oso ondo zebilela erlojua eta nik poza hartzen nuen. Desgaste hau azaldu ez bali-tzait, oraindik ere jarraitzeko prest nengoen. Orain 77 urte dauzkat eta beste hiru gehiago ere egingo

nituela uste dut, lehen bezala egon ezker. Baina ez zitzaidala aldapetan eta eskailleratan ibiltzea komeni eta utzi egin nion. Kartak banatzeari ere halaxe utzi nion.

ASKOTAN HONDATU AL DA ERLOJUA? Ez, orain arte behin bakarrik, 1998ko uztaillean konpondu zuten. Hondatu zenean, Don Ramon apai-zak Debako erlojeroa ekarri zuen, Ostolaza. Hark berria ekarri behar zela esan zuen, milioi erdi edo kostako zela konpontzea eta, gaimera, ez zela ondo jarriko. Baina Zarruzko Manuel Eizagirre ezaguna nuen eta honek bazekien erlojuak konpontzen. Hamar mila duron konpondu zuen, zerbait kobratu zuela esatagatik. Dena desmontatu eta zortzi kaskilo berri ipini zizkion. Ni lehen alanbreekin eta ibiltzen nintzen, eta zortzi kaskilo horiek jarri eta esan zuen beste ehun urte iraungo zuela, orain lehen baino material hobek zeudela eta. Orain primeran dabil.

NOIZ JOATEN ZINEN KANPANDORRERA? GOIZEAN, ARRATSALDEAN... Goizean. Goizeko 4:30etan jeiki, Setari etxetik irten eta egunkariak banatu lehenengo. Hori egin eta gero joaten nintzen. Ordu erdi edo pasatzen nuen nik han, lasai-lasai hartu eta ahal nuen ondoena jartzen.

BITXIKERIREN BAT EDO? Ez, ez zait inoiz ezer berezirik gertatu. Zer pasa behar zitzaidan ba, han santuak bakarrik daude eta! Nik kaso egiten nien beti santuei eta beraiek ere bai neri eta horrelaxe. Ondo konpontzen nintzen ni haiekin ea beraiek ere bai nerekin.

NOR ARDURATZEN DA ORAIN ERLOJUAK? EMAN AL DIOZU AHOLKURIK? Orain Aitor Alberdi gaztea arduratzen da erlojuaz, oraintxe udaletxean sartu berria da. Nik nekizkien erakutsi dizkiot, neri Luxianok erakutsi zizkidan bezalaxe.

